# 2019RA LUZATUTAKO 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA

**Programa:** 65 HONDAKINEN KUDEAKETA INTEGRALA

## SAILAREN MEMORIA

### I. MEMORIA

Indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko 3/1998 Lege Orokorraren eskumenak baliatuz, 2018ko azaroaren 21eko 20. Foru Arauaren bidez "Arabako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana (2017-2030)" onetsi zen, eta programa ekonomiko honen xedea da planean jasotako ekintzak garatzea, dela azpiegitura berrietan, dela ekintza estrategikoagoetan, gobernantzan edo frakzioen tratamendura bideratuta.

Era berean, programa honen barruan, hiri hondakin solidoak behar bezala kudeatzeko eta tratatzeko zerbitzuak ematen dira, eta horiek behar bezala antolatzeko, gaika biltzeko eta birziklatzeko bitartekoak ere sustatzen dira, prebentzioari eta birzikla daitezkeen frakzioen kudeaketari arreta berezia eskainiz.

Programa honek beste esparru batzuetara ere bideratzen ditu baliabideak, hala nola ingurumen egokitasunaren ziurtagiriak eta jarduera sailkatuen txostenak egitera. Ziurtagiri horiek 2010eko martxoaren 9ko 9. Foru Dekretuak (garapen iraunkorra, ingurumenaren zaintza eta hobetzea eta energia iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzen lagunduko duten inbertsioen komunikazioaren eta egokitasun ziurtagiriaren araubidea onesten du, Sozietateen gaineko Zergan xedatutako kenkarietarako) ezartzen dituen betebeharren barruan daude, eta jarduera sailkatuen txostenak Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra aplikatzetik eratorritako betebeharren barruan. Lege horren arabera, foru organo eskudunari dagokio hiri lurzoruan kokatutako jarduera sailkatuak instalatzeko edo handitzeko proiektuen neurri zuzentzaileak ezartzea.

### II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE MAILA

Programatutako helburuak betetzeko, azken aurrekontua 4.747.605,99 €-koa izan da, eta honako

# LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2018 PRORROGADO PARA 2019

**Departamento:** 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**Programa:** 65 GESTIÓN INTEGRAL DE RESIDUOS

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

En el ejercicio de las competencias de la vigente Ley 3/1998, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, se aprobó mediante Norma Foral 20, del 21 de noviembre de 2018, el “Plan de Prevención y gestión de residuos urbanos de Araba-Álava (2017-2030)”, siendo objeto de este programa económico el desarrollo de las acciones en él contenidas, bien sea a nivel de nuevas infraestructuras como de otras acciones más estratégicas, de gobernanza u orientadas al tratamiento de las fracciones prioritarias.

Asimismo, dentro de este mismo programa se prestan servicios para la gestión y tratamiento adecuado de residuos sólidos urbanos, impulsando también la dotación de medios para su oportuna disposición, recogida selectiva y reciclaje, prestando especial atención a la prevención y a la gestión de las fracciones reciclables.

Otros ámbitos a los que este programa destina también recursos son la emisión de certificados de idoneidad ambiental e informes de actividades clasificadas, enmarcados respectivamente en las obligaciones derivadas de la aplicación del Decreto Foral 9 de 9 de marzo de 2010 que regula el Régimen de Comunicación y del Certificado de Idoneidad Ambiental de las inversiones que procuren el desarrollo sostenible, la conservación y mejora del medio ambiente y el aprovechamiento más eficiente de fuentes de energía, a los efectos de la deducción prevista en el Impuesto de Sociedades, y de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, según la cual corresponde al órgano foral competente la imposición de medidas correctoras de los proyectos de instalación o ampliación de actividades clasificadas localizadas en suelo urbano residencial.

### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Para el cumplimiento de los objetivos programados se ha dispuesto de un presupuesto final de 4.747.605,99 €

hauetara bideratu da:

- **Arabako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2017-2030 Plana garatzea**

  Onartu berri den Arabako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana (2017-2030) garatzeko helburuaren barruan, dagozkien programen arabera identifikatutako ekintza hauek garatu dira:

  - *Gobernantzaren eta neurri estrategikoen programa*

    Arabako hondakinen kudeaketan gobernantza eredu berri bat ezartzeko lanei ekin zaie, bai eta proba pilotu bati ere, etxeko frakzio organikoaren kudeaketaren eta nekazaritza sektorearen artean sinergiak bilatzeko. Bi lanek 2020. urtean zehar jarraituko dute.

    Aurreko urteetan bezala, Hiri Hondakinen Behatokia egin eta argitaratu da, kasu honetan 2018. urteari dagokiona.

  - *Azpiegituren programa*

    Haraneko udalerrian landa eremuko garbigune berri bat eraiki da, eraikuntzako hondakinak, tamaina handikoak eta inausketa hondakinak gaika biltzeko.

  - *Neurri osagarrien eta lehentasunezko frakzioen programa*

    2018. urteko ildoari jarraituz, eta konposta bultzatze aldera, eremu berri bat gaitu da Samaniegon kokatutako hirugarren adinerako egoitzan; Aldundiak kudeatzen du egoitza.

    Arabako erakundeei zuzendutako laguntzen deialdi berri bat onartu da frakzio organikoaren gaikako bilketa bultzatzeko.

    Prestakuntza, informazio eta sentsibilizazio arloan Inforezikla webgune eta app aplikazioari eutsi zaie eta berritu egin dira, “Nora eraman behar ditut hondakinak?” ohiko galderak erantzuteko.

    Beste sentsibilizazio kanpaina batzuetan ere parte hartu dugu, hala nola TANTAKAn, jatetxeek ur hornidurarako plastikozko ontzien erabilera murrizteko konpromisoa hartzea bilatuz, eta

que ha sido destinado a:

- **Desarrollo del Plan de Prevención y Gestión de Residuos Urbanos de Araba-Alava (2017-2030)**

  Dentro del objetivo de desarrollar el recientemente aprobado Plan de Prevención y Gestión de Residuos Urbanos de Araba-Alava (2017-2030), desarrollándose las siguientes acciones identificadas según los distintos programas a los que pertencen:

  - *Programa de Gobernanza y medidas estratégicas*

    Se han iniciado los trabajos para el establecimiento de un nuevo modelo de gobernanza en la gestión de residuos en Alava, así como los de una prueba piloto para buscar sinergias entre la gestión de la fracción orgánica de origen doméstico y el sector agrario. Ambos trabajos continuarán durante el año 2020.

    Como en años anteriores se ha elaborado y publicado el Observatorio de Residuos Urbanos, en este caso el relativo al año 2018.

  - *Programa de infraestructuras*

    Se ha construido en el municipio del Valle de Arana un nuevo punto limpio rural, facilitando así la recogida selectiva de residuos de construcción, voluminosos y restos de podas.

  - *Programa de acompañamiento y fracciones prioritarias*

    En la misma línea que el ejercicio 2018, con el fin de potenciar el compostaje se ha habilitado una nueva zona en la residencia de tercera edad localizada en Samaniego y de gestión foral.

    Se ha aprobado una nueva convocatoria de ayudas destinadas a las entidades alavesas para impulsar la recogida selectiva de la fracción orgánica.

    En el área de formación, información y sensibilización se ha mantenido y actualizado la aplicación app y web Inforezikla para dar respuestas a las habituales preguntas “¿a dónde llevo mis residuos?”.

    También se ha colaborado en otras campañas de sensibilización como TANTAKA, buscando el compromiso de los restaurantes en reducir el empleo de envases de plástico para el suministro

Eusko Jaurlaritzaren “Birziklapenean jaioak gara” sentsibilizazio kanpainan.

– **<u>Hiri hondakinak biltzeko eta kudeatzeko zerbitzuak ematea</u>**

Programa horren barruan, etxeko hiri hondakinak biltzeko eta kudeatzeko zerbitzuak ematen dira.

2001. urteaz geroztik, Jundizko ontzien planta kudeatzen da, eta helburua da Arabako kuadrilletatik datozen ontziak hautatzea eta sailkatzea.

Amurrioko, Langraiz Okako, Tuestako, Oiongo, Dulantziko eta Santikurutze Kanpezuko garbiguneak mantendu, kontserbatu eta kudeatzen dira (berriak dira eta 2019ko otsailean ireki ziren), bai eta gaur egun Arabako geografia osoan banatutako landa eremuko 102 garbiguneak ere.

Lurralde osoan papera eta kartoia edukiontzietan biltzeko lanak egiten jarraitu da (Gasteizen izan ezik), bai eta saltokietako paper eta kartoia atez ate biltzen ere Amurrion, Artziniegan eta Laudion. Hitzarmena formalizatu eta gero, zerbitzu hori Nafarroako Genevilla, Cabredo eta Marañón herrietara zabaldu da.

Era berean, ehunak, jostailuak, liburuak eta gailu elektriko eta elektroniko txikiak edukiontzietan biltzen jarraitu da; lurralde osoan ehun edukiontzi inguru daude banatuta horretarako.

Lehendik zeuden edukiontziak konpondu eta zaintzeko lanak gauzatzen jarraitu da, eta puntu berde mugikorraren zerbitzua eskaintzen. Arabako guneen sakabanatze handiaren ondorioz, garbigune horietan herritarrek azpiegitura finkoetan uzten gaitz duten hondakinak biltzen dira.

Zerbitzuen berrantolaketaren esparruan, lurraldean sakabanatutako nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinen etxolak eta motorreko olio edukiontzi isolatuak ixten hasi dira.

de agua, y con la campaña de sensibilización Reciclar es lo Nuestro liderada por el Gobierno Vasco.

– **<u>Prestación de servicios de recogida y gestión de residuos urbanos</u>**

Dentro de este mismo programa se lleva a cabo la prestación de servicios de recogida y gestión de residuos urbanos domésticos.

Desde el año 2001 se gestiona la Planta de envases de Júndiz, teniendo como objetivo la selección y clasificación de los envases procedentes de las cuadrillas alavesas.

Se mantienen, conservan y gestionan los Garbigunes de Amurrio, Nanclares de la Oca, Tuesta, Oyón, Alegría-Dulantzi y Santa Cruz de Campezo (de nueva ejecución y apertura al público en febrero 2019), así como los 102 puntos limpios rurales distribuidos actualmente por toda la geografía alavesa.

Continua la recogida contenerizada de papel y cartón en todo el Territorio (excepto el municipio de Vitoria-Gasteiz), la recogida puerta a puerta de procedencia comercial en las localidades de Amurrio, Artziniega y Llodio y la ampliación a las localidades navarras de Genevilla, Cabredo y Marañón previa formalización de convenio.

Asimismo, se mantiene la recogida contenerizada de la fracción textil, juguetes, libros y pequeño aparato eléctrico y electrónico en el centenar de contenedores distribuidos al efecto por todo el Territorio.

Se continúa también con las labores de reparación y mantenimiento de los contenedores existentes, así como con el servicio de Punto Verde Móvil. Su finalidad es la recogida selectiva de aquellas fracciones que como consecuencia de la gran dispersión de los núcleos alaveses, los/as usuarios/as tienen mayor dificultad para entregar en las infraestucturas fijas.

En el marco de la reorganización de servicios se ha iniciado la clausura de las casetas de residuos agropecuarios dispersas por el Territorio y de contenedores de aceite de motor aislados.

# 2019RA LUZATUTAKO 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA

**Programa:** 65 HONDAKINEN KUDEAKETA INTEGRALA

– **Bizitegitarako hiriguneetan sailkatutako jardueren kudeaketa**

Bizitegitarako hiri zonetan jarduera baimena behar duten jarduera sailkatuetarako zuzentze neurriak ezartzeko txostenak idazten jarraitu da. Garrantzi handiko gaiak dira, zuzeneko eragina dutelako jardueraren eremuak ukitutako herritarren bizi kalitatean. Guztira hamar espediente landu dira.

– **Ingurumen egokitasunaren ziurtagiriak egitea**

Ingurumen Sailak, Garapen iraunkorra, ingurumenaren zaintzen eta hobetzen eta energia iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzen lagunduko duten inbertsioen komunikazioaren eta ingurumen egokitasunaren ziurtagiriaren araubidea onartzen duen Foru Dekretua betetzearren (9/2010 Foru Dekretua, 2010eko martxoaren 9koa), eta sozietateen gaineko zergan xedatutako kenkariak direla eta Arabako enpresek bidalitako 9 eskaerei erantzuteko, eskaera horiek aztertu, haien edukia begiratu eta aurkeztutako proposamenen justifikazioa eta balorazioa egiaztatu du.

SARRERAK

ERP eta FUNDACIÓN ECOPILAS erakundearekin pilak eta metagailuak biltzeko sinatutako hitzarmenaren ondorioz sarrerak jaso dira: 13.742,45euro.

Eusko Jaurlaritza-Ecoembesekin ontziak hautatzeko sinatutako hitzarmenaren ondorioz, 2.344.328,46 euro egiten duten diru sarrerak aitortu dira.

Eusko Jaurlaritza-Ecoembesekin papera eta kartoia biltzeko sinatutako hitzarmenaren ondorioz, 100.479,08euro egiten duten diru sarrerak aitortu dira.

Papera eta kartoia salduz, berriz, 95.855,99euroko diru sarrerak izan dira.

# LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2018 PRORROGADO PARA 2019

**Departamento:** 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**Programa:** 65 GESTIÓN INTEGRAL DE RESIDUOS

– **Gestión de las actividades clasificadas en zonas urbanas residenciales**

Se ha continuado con la redacción de informes de imposición de medidas correctoras para las actividades clasificadas sometidas a licencia de actividad en zonas urbanas residenciales. Materias de gran importancia por incidir directamente en la calidad de vida de los ciudadanos afectados por el área de incidencia de la actividad. El total de expedientes atendidos han sido de diez.

– **Emisión de Certificados de Idoneidad Ambiental**

En cumplimiento del Decreto Foral 9 de 9 de marzo de 2010 que regula el Régimen de Comunicación y del Certificado de Idoneidad Ambiental de las inversiones que procuren el desarrollo sostenible, la conservación y mejora del medio ambiente y el aprovechamiento más eficiente de fuentes de energía, a los efectos de la deducción prevista en el Impuesto de Sociedades, y con el fin de dar respuesta a 9 solicitudes enviadas por las empresas alavesas, el Departamento de Medio Ambiente y Urbanismo ha estudiado dichas solicitudes analizando su contenido y comprobando la justificación y valoración de las propuestas presentadas.

INGRESOS

Derivado del convenio con ERP y FUNDACIÓN ECOPILAS para la recogida de pilas y acumuladores se han reconocido ingresos por el importe de 13.742,45 €.

Asímismo, como consecuencia del  convenio con Gobierno Vasco-Ecoembes para Selección de envases se han reconocido ingresos por importe de 2.344.328,46 €.

Respecto al Convenio con Gobierno Vasco-Ecoembes para recogida de papel y cartón se han reconocido ingresos por importe de 100.479,08 €.

Respecto a la venta de papel y cartón se han reconocido ingresos por importe de 95.855,99 €.